

Hitz eta hots inprobisatuak

JAZZ MATINÉ

Igelaren Bandaren jazz eta Miren Amurizaren eta Beñat Gaztelumendiren bertsoak. Urriaren 30ean Bilboko Guggenheim Museoa egindako saioa, Bilbao 700 Fundazioak antolatzen duen *Jazz Matiné* zikloaren barruan.



Dabi Piedra

Igande eguerdi lasai eta eguzkitsu bat une aproposagoa izan daiteke kalean ibiltzeko jazzaren doinu sigi-sagatsuetan murgiltzeko baino. Guggenheim Museoko entzungelako iluntasunean batu ziren entzuleek, ordea, bazuten han egoteko arrazoi on bat. Inprobisazio bikoitza entzuteko aukera izan zuten: Igelaren Bandako musikarien jazz, batetik; bertsolarien errimak, bestetik.

Jazzaren eta bertsoaren arteko fusiorako aurreneko urratsa Igelaren Bandak egin zuen, *Debalde festa* diskoarekin. Bertsoarako doinu tradizionalak beren estilora ekarri zituzten Bixente Martinez gitarra joleak, Amaiur Cajaraville kontrabaxuak eta Asier Oleaga bateriak. Bilboko emanaldiari, hain zuzen, diskoko pieza batzuekin ekin zion hirukoteak.

Xarmangarria zira, Pello Joxepe, Antton eta Maria eta beste doinu ezagun batzuen interpretazio librea entzun ahal izan zuten bertaratutakoek. Perkusioak eta kontrabaxuak, jazzaren errit-



mora, ezusteko bide gorabeheratsuak arakutzen zituzten bitartean, Bixente Martinezen gitarrak markatzen zuen norabidea, edozein bertsozalerentzat ezagun-ezagunak diren notekin. Une magikoa izan zen, bertso-saioen ohiko girotik urrun, doinuek beste dimentsio bat hartu baitzuten.

Ariketarik zailena ondoren etorri zen, bertsolariak oholtzan zirela. Musika-riek bertsolarien esanekin inprobisatu behar izan zuten eta bertsolariak musikarien doinuetara egokitu. Josu Goikoe-txea gai-jartzailearen esanetara, Miren Amuriza eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren. Asmoaren berri Gaztelumendik eman zuen agurrean: "Ea uztartzen ditugun, gutxika-gutxika / musikaren hitza ta, hitzaren musika".

Eta uztartu zituzten, bai, ondo uztartu ere. Entzungelako giro intimora egokitutako gaiek lagundu zuten horretan. Maitasunaz abestu zuten lehenengo, Igelaren Bandakoek jotako doinuak ira-

dokitzen zienaz ondoren. Bertsoaldirik biribilenak bakarkakoan entzun ziren. Beñat Gaztelumendi ezin dotoreago ibili zen, aita zahartua zaindu behar duen semearen larruan.

Igelaren Bandaren musika ez zen dekorazio hutsa izan. Bertsoetan azaleratutako sentimenduak areagotzen lagundu zuten jazzaren doinu malenkoniatsuek, batez ere, Gaztelumendiren txandan. Etorkizunera begira kantari jarri zutenean, Amurizaren gogoak ere errazago egin zuen hegan musikaren hegoekin.

Emanaldi atsegina ez ezik, berritzailea izan zen Bilboko. Bixente Martinezek aitortu zuen jazzaren eta bertsoaren arteko halako fusiorik aurretik egin gabea zela bera. Ordu eta erdi ziztu bizian pasa zen. Nahasketa ugari egin dira azkenaldian bertsoaren eta beste disziplina artistiko batzuen artean eta, oraingo hau, behintzat, balekoa izan zela esango dugu. ■